


«Adimen artifizialaren olatuak harrapatu gaitu, eta, horri aurre egiteko, geuretik zerbait jarri behar dugu»

XABIER ARREGI eta ITZIAR ALDABE

EHUko Informatika Fakultateko irakasleak eta Hitzeko ikertzaileak

Espainiako Gobernuak bultzatutako ALIA proiektuan parte hartu dute, adimen artifizialeko tresnak garatzeko. Euskal Herriak baliabide propioen aldeko apustua egin behar duela uste dute: euskaraz eta guztien eskura.



Jakes Goikoetxea

DONOSTIA— Adimen artifizialari buruzko ikerketaren eta ikerketa horren aplikazioaren arteko denbora tarteaz izugarri laburtu da. Enpresek, administrazioek eta garatzaileek ikertzaileek sortutako tresnak behar dituzte adimen artifizialean oinarritutako aplikazio praktikoak garatzeko. Espainiako Gobernuak ALIA (Hizkuntzarako eta Adimen Artifizialerako Aktiboak) proiektua bultzatu du, gaztelaniaz eta hizkuntza koofizialetan —euskara, katalana eta galegoa— adimen artifizialeko tresna irekiak eta publikoak sortzeko, eta gero horiek nahi eta behar dituztenen eskura uzteko. Hitz Hizkuntza Teknologiko Euskal Zentroak parte hartu du proiektuan. Itziar Aldabe (Beasain, Gipuzkoa, 1979) eta Xabier Arregi (Zubieta, Usurbil, Gipuzkoa, 1964) EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta Hitzeko ikertzaileak aritu dira ALIAN lanean. Tresna horien erabilera batzuk aurkeztu dituzte martxoan Donostian, eta aurkeztuko dituzte apirilaren 22an Bilbon.

ALIA, laburbilduta, Espainiako Gobernuak bultzatutako proiektu bat da, gaztelaniaz eta hizkuntza koofizialetan adimen artifiziala garatzeko baliabideak eskaintzeko. Baliabide publikoak eta irekiak. Zer gehiago da?

XABIER ARREGI: ALIA, batez ere, transferentziari begira sortutako proiektu bat da. Adimen artifizialeko ikerketak sortutako tresnak garatzeko eta erabiltzeko. Ikerketaileok zerbait sortzen dugu, nonbait uzten dugu eta gero gure lanaren berri ematen dugu artikuluen bidez. Hor uzten duzun horri ez badiozu beste bultzada bat ematen, arrisku handia dago tiradera batean geratzeko eta inork kasurik ez egiteko. Orduan, Espainiako Gobernuak bultzada bat eman nahi zien adimen artifizialean sortu diren baliabideei: ezagutarazi, erabiltzeko moduan jarri eta jendeari erabiltzen lagundu.

ALIA ez dago herritarrentzat pentsatua, herritarrek erabiltzeko?

ITZIAR ALDABE: Ez dakit fase horretara iritsiko garen. Azkenean,

guk enpresen, administrazioen eta garatzaileen eskura jartzen ditugu lortu ditugun baliabide horiek, haiek ezin dituztelako horrelako gauzak beren kabuz egin, produktuak edo aplikazioak garatzeko. Baina guk ez ditugu produktuak egiten.

ARREGI: Aintzat hartu behar da adimen artifizialean asko laburtu dela ikerketaren eta aplikazioaren edo produktuaren arteko denbora tarteaz, ChatGPT-ekin gertatu den moduan. Baina, transferentzia lan hori egiteko, norbait behar da, eta ez da akademia edo ikerketa zentroa. Enpresek, garatzaileek eta administrazioek izan behar dute. ALIAko tresnekin ikusten dute aplikazioak egin daitezkeela nahitaez AEBetako enpresa erraldoietara joan gabe. Badaude Gemini, ChatGPT, Claude... baina horiek eredu itxiak dira. Haien erabiltzaile hutsa zara, ezin dituzu hartu eta moldatu, kutxa itxiak dira; aldiz, ALIAN sortutakoak baliabide irekiak dira, aukera ematen dute hartzeko, erabiltzeko, aldatzeko, osatzeko eta bertsio berriak sortzeko.



«Teknologikoki gaitasuna izatea eta ezagutza izatea funtsezkoa da, zeren bestela beste batzuen gain ari zara uzten»

«Latxa plazaratzen denean, jendeak esango digu zer egiten duen ondo eta zer ez. Hobetzer behartuko gaitu»

XABIER ARREGI
Hitz zentroko ikerlaria

Kasu gehienetan transferentzia egiteko garatzaile bat beharko da. Ideia bat izanda edo premia bat ikusita ere, asko ez dira gai izango garatzeko.

ALDABE: Hori da.

ARREGI: Gauza batzuetarako ez da behar sekulako ezagutza. Egin daitezke gauzak sekulako ezagutza izan gabe.

Eman al ditzakezue ALIAN sortutako tresnak izan ditzaketen aplikazio praktikoan adibideak?

ALDABE: Adimen artifizialeko hizkuntza ereduaz hitz egiten dugunean, askotan testuaz hitz egiten dugu, baina ahotsa ere badago. Badago proiektu bat 112 larrialdi zerbitzuko langileek deiak jasotzen dituztenean deitzaileak esandakoa transkribatzeko eta gako hitzak emateko. Horrek langileari estres gutxiago eragiten dio eta elkarrekintza hobea sortzen du. Ahotsean oinarritutako beste erabilera bat ere garatzen ari da, udalbatzetako hitzartzeak aktetara transkribatzeko.

ARREGI: Donostiako Miramar jauregiko jardunaldian beste erabilera bat erakutsi zen: fact